



A m o r o t o k o U d a l a

Elexalde Auzoa, 1
48289 Amoroto (Bizkaia)
Tel: 946842549 - Fax: 946243704
E-mail: mblaka.amoroto@bizkaia.org
Web: www.amoroto.net

Akta: 04/04

2004KO APIRILAREN 28AN EGINDAKO BATZARRA

Amoroton, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta lauko apirilaren hogeita zortzian, gaueko zortzietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Maribi Ugarteburu Markuerkiaga alkate andrea buru dela.

Bertaratuak:

Zinegotziak: Bitor Mari Gabiola Leniz
Sorkunde Gabiola Zabala
Ainara Ikaran Zugazaga
Igor Gabiola Antxustegi
Pedro Mari Arriaga Meabebasterretxea
Idazkaria: César Gandarias Badiola

Bertaratu ez direnak:

Ramon Abaroa Iturran

Alkate-udalburu andreak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- LEHEN OKUPAZIORAKO HIRIGINTZ BAIMEN ESKAERA.-

Jose M^a Quintana Cimiano jaunak, Odiaga auzoan kokatzen den Erreka baserriaren lehen okupaziorako hirigintz baimena eskatu du.

Kontuan izanik eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa eta udal arkitektu aholkulariaren txostena, Udalbatzak aho batez erabaki du:

- 1) Ugaran auzoan kokatzen den Errekarte baserriaren lehen okupaziorako hirigintz baimena ematea.
- 2) Interesatuak eraikinaren Uri Katastroaren alta eskaeraren kopia aurkeztu beharko du.
- 3) Zergaren ordainketa 40.268,53 eurotako likidazioari buruz egingo da.

2.- OBRETARAKO LIZENTZIA EMAN, EGOKI BADA, PEDRO M^a ARRIAGA JAUNARI.-

Iskander Atutxa Zalduegi arkitektoak idatzitako oinarrizko proiektuaren arabera egiteko eta 315.000 eurotako aurrekontuarekin, Amorotoko Ugaran auzoko Artin-errota berreraikitzeke Pedro M^a Arriaga jaunak eskatu duen obretarako lizentzia emateko espedientea ikusirik.

Ikusirik Jesus Angel Landia Uribe udal arkitekto aholkulari jaunak idatzitako txostena.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Pedro M^a Arriaga jaunari eskatutako lizentzia ematea, ondoren adierazten diren baldintzak betez:

- 1) Obra hasi baino lehen exekuzio proiektua aurkeztu beharko du.
- 2) Berreraikiko den etxea eta inguruan dagoen errekaren arteko distantziak, Eusko Jaurlaritzako uren zerbitzuak jarritako kondizioak bete beharko ditu.
- 3) Obrak Udal honetan aurkeztutako eta espedientean agertzen den proiektuari eta eskatutako exekuzio proiektuari guztiz egokitu beharko dira. Lizentziaren kanpo gelditzen den edozein aldaketa uratse zigorgarria izango da eta dagokion legeztatze espedientea eskatu ahal izango zaio. Lizentzia honetako edozein baldintza ez betetzea zigortua izan daiteke, bai isun bat jarriz bai obrak geldituz, Udalbatzak erabakitzen duenaren arabera.
- 4) Obren exekuziorako Goi mailako Arkitekto eta Aparejadore edo Arkitekto Teknikoaren zerbitzuen kontratazioa exijitzen da. Udal Idazkaritzan dagozkien zerbitzu profesionalen errentamendu kontratuen fotokopiak aurkeztu beharko dira. Baita ere beharrezkoa den segurtasun koordinatzailearena.
- 5) Obrak hasi aurretik, tokiaren egiaztapen agiria (replanteoko akta) egingo da, jabetzak idatziz eskatuko duelarik.
- 6) Ukitzen dion indarreango legeria guztia bete beharko da, bereziki laneko osasun eta segurtasunari buruzkoa.
- 7) Halaber, ugazaben kargu izango dira urbanizazio kostuak eta beharrezko izan daitezkeen bide, ur, argi eta zerbitzu guztien ezarpena.
- 8) Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, Udaletxean exekuzio proiektua aurkezten denetik zenbatua. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.
- 9) Obrak bukatu eta gero, Udaletxean berri eman beharko dute, Udaleko zerbitzu teknikoek inspektzioa egin dezaten; obretarako lizentzia emategatiko tasa eta eraikuntz, instalazio eta obren ziozko zergaren behin betiko likidazioa egingo delarik. Eskaearekin batera obren amaierako ziurtagiria eta obren likidazioaren laburpena aurkeztu beharko dira, obren zuzendaritzako teknikoei dagokien Elkargo Profesionalek bisaturik.
- 10) Lizentzia hau beste Administrazio edo Erakundeen eskuduntzen kalterik gabe, jabetzaren eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

3.- OBRETARAKO LIZENTZIA EMAN, EGOKI BADA, JAVIER ANTONIO ARRIAGA ETA MAIDER GARRAMIOLA JAUN ANDREEI.-

Nuria Arrizabalaga arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera egiteko eta 105.060,68 eurotako aurrekontuarekin, Amoretoko Urrutia auzoko guneruralean etxebizitza bakar bat eraikitzeko Javier Antonio Arriaga eta Maider Garramiola jaun andreek eskatu duten obretarako lizentzia emateko espedientea ikusirik.

Ikusirik Jesus Angel Landia Uribe udal arkitekto aholkulari jaunak idatzitako txostena.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Javier Antonio Arriaga eta Maider Garramiola jaun andreei eskatutako lizentzia ematea, ondoren adierazten diren baldintzak betez:

- 1) Obrak Udal honetan aurkeztutako eta espedientean agertzen den proiektuari guztiz egokitu beharko dira. Lizentziaren kanpo gelditzen den edozein aldaketa uratse zigorgarria izango da eta dagokion legeztatze espedientea eskatu ahal izango zaio. Lizentzia honetako edozein baldintza ez betetzea zigortua izan daiteke, bai isun bat jarriz bai obrak geldituz, Udalbatzak erabakitzen duenaren arabera.

- 2) Obren exekuziorako Goi mailako Arkitekto eta Aparejadore edo Arkitekto Teknikoaren zerbitzuen kontratazioa exijitzen da. Udal Idazkaritzan dagozkien zerbitzu profesionalen errentamendu kontratuen fotokopiak aurkeztu beharko dira. Baita ere beharrezkoa den segurtasun koordinatzailearena.
- 3) Obrak hasi aurretik, tokiaren egiaztapen agiria (replanteoko akta) egingo da, jabetzak idatziz eskatuko duelarik.
- 4) Ukitzen dion indarreango legeria guztia bete beharko da, bereziki laneko osasun eta segurtasunari buruzkoa.
- 5) Halaber, ugazaben kargu izango dira urbanizazio kostuak eta beharrezko izan daitezkeen bide, ur, argi eta zerbitzu guztien ezarpena.
- 6) Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, baimen hau jakinerazten denetik zenbatua. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.
- 7) Obrak bukatu eta gero, Udaletxean berri eman beharko dute, Udaleko zerbitzu teknikoek inspektzioa egin dezaten; obretarako lizentzia emategatiko tasa eta eraikuntz, instalazio eta obren ziozko zergaren behin betiko likidazioa egingo delarik. Eskaerarekin batera obren amaierako ziurtagiria eta obren likidazioaren laburpena aurkeztu beharko dira, obren zuzendaritzako teknikoei dagokien Elkargo Profesionalek bisaturik.
- 8) Lizentzia hau beste Administrazio edo Erakundeen eskuduntzen kalterik gabe, jabetzaren eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

4.- UDAL JABETZAKO ESKOLAN BARNEKO ERREFORMA EGITEKO, DIRULAGUNTZA ESKATZEA EUSKO JAURLARITZARI.-

Hezkuntza administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantzaketa arautzen duen 2004ko martxoaren 17ko Foru Aginduaren berri eman ondoren eta Learri,S.A.k idatzitako txostena eta aurrekontua ikusirik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

- 1) Learri,S.A.k idatzitako "Eskola Barneko Erreforma"ri buruzko txostena eta aurrekontua onartzea.
- 2) Dirulaguntza eskatzea Eusko Jaurlaritzari, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2004ko martxoaren 17ko Foru Aginduaren karguz, "Eskola Barneko Erreforma" egitasmoko obren exekuziorako, bere aurrekontua 3.981,00 eurotako delarik.

Dirulaguntza lortuz gero, inbertsioan finantzakide izateko eta eginda gero eraikuntzaz arduratzeko konpromisoa beregan hartzen du Amorotoko Udalak.

5.- OLETAKO JAIETARAKO DIRU LAGUNTZA ONARTZEA, EGOKI BADA.-

Oletako Jai Batzordeak aurkeztutako 2004ko Pasku Jaietako gastuei aurre egiteko Udal honen diru laguntza eskaeraren berri eman da eta Udalbatzak erabaki du: Oletako Jai Batzordeari HIRU MILA (3.000,-) eurotako diru laguntza ematea 2004ko Paskuetarako antolatutako jai egitarauko gastuei aurre egiteko.

6.- GARBITZAILE BAT KONTRATATZEKO DEIALDIA.-

Alkate andreak azaltzen du 2003ko uztailaren 1eko datarekin, horretarako zabalduko deialdia ebatzi ondoren, M^a Purificación Anakabe Okamika andrea denboraldi baterako kontratatu zela garbitzaile bezala, urte beteko eperako, 2004ko ekainaren 30ean bukatzen delarik aipatutako kontratua.

Hori ikusirik, Alkate andreak proposatzen du deialdi publiko berri bat zabaltzea garbitzaile bezala beste pertsona baten kontrataziorako, denboraldiko enplegu bat lortzeko aukera beste pertsona batzuei emateko asmoz; eta deialdia ebatzi ondoren, M^a Purificación Anakabe Okamika andrearekin izenpetutako lan-kontratua bukatutzat ematea.

Proposamena aztertu ondoren, Udaltzarak ahobatez erabaki du:

Garbitzaile bezala eta denbora partzalean (20 ordu astean), pertsona baten denboraldi baterako kontrataziorako deialdi publikoa zabaltzea. Eskaerak aurkezteko epea 2004ko maiatzaren 7tik 25era bitartekoa izango da.

7.- AMOROTOKO UDALERRIAN SABAS BEDIAUNETA INGENIARIAK, KOSTATZAKO BIDEA EGOKITZEKO EGINDAKO PROIEKTUA AURRERA ERAMATEKO AGINDUA "LEARRI, S.A." MERKATARITZA-ENPRESARI EMATEKO PROPOSAMENA.-

Alkate andreak azaldu duenez, Sabas Bedialauneta ingeniariak Kostatzako bidea egokitzeko proiektua egin du jadanik. Proiektu hau aurrera eramateko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntza eskatu dio, baita honen aldetik eman ere. Aipatutako proiektuaren kargu egiteko egokiena bezala Learri, S.A. agertu da. Aipatutakoa kontuan izan da, eta ondokoa ere OINARRITZAT HARTU DA:

Lehenengoa: Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15 artikulua, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeko aldarazpenak aintzat hartuta, ondokoa ezarri zuen:

1. Zuzenbide publikoko erakunde edo administrazio-organoen eskumeneko jarduerak, zehazkiago esateko, arlo material, tekniko edo zerbitzu arloko jarduerak, burutzeko ardura Administrazio bereko edo beste Administrazio bateko organo edo erakundeen esku utz daiteke, eraginkortasun arrazoiak direla-eta, edo jarduera horiek burutzeko bitarteko tekniko egokirik ez badago.
2. Kudeaketa norbaiten esku uzteak ez du esan nahi eskumenaren edo eskumena burutzeko funtsezko elementuen titulartasuna lagatzen denik, eta kudeaketa besteren esku uzteko proposamena egiten duen organo edo erakundearen ardura da besteren esku utzitako jarduera material zehatza osatzen duen edo jarduera horren euskarri den egintza edo ebazpen juridiko oro burutu edo ematea.
3. Administrazio bereko zuzenbide publikoko administrazio-organoen edo erakundeen arteko kudeaketa norbaiten esku uztea bertako araudiak ezarri bezala formalizatu beharko da eta, araudirik ez balego, parte hartzen duten organo edo erakundeen berariazko erabakiaren bidez. Edonola ere, kudeaketa norbaiten esku uzteko proposamena formalizatzeko bitartekoa eta ebazpena bidezko egunkari ofizialean argitaratu behar dira, eraginkorrak izan daitezten.
Administrazio bakoitzak beharrezko betekizunak arautu ahal izango ditu akordio horiek baliozkoak izan daitezten. Akordio horiek, gutxienez, honako hauek aipatu behar dituzte berariaz: eragina jasango du(t)en jarduera(k), indarraldia eta norbaiten esku utzitako kudeaketaren izaera eta irismena.
4. Kudeaketa hori norbaiten esku uztea Administrazio desberdinetako organo eta erakundeen artean egiten bada, bidezko hitzarmena sinatuko da organo eta erakunde horien artean, Autonomia Erkidegoetako zerbitzuak, modu arruntean, probintziako Diputazioek, edo bidezkoa bada, uharteko Kabildo edo Kontseiluek kudeatzen badituzte salbu; izan ere, kasu horretan Toki Araubideko legediari heldu behar zaio.
5. Artikulu honetan araupetzen den kudeaketa norbaiten esku uzteko artikulu honetan araubide juridikoa ez da aplikatuko lehenengo atalean adierazitako jarduerak zuzenbide pribatuko pertsona fisiko edo juridikoek burutu behar badituzte. Izan ere, kasu horretan kontratuei buruzko Estatuko legediari heldu behar zaio, bidezkoa denean, eta indarrean

dagoen legediaren arabera, administrazio-zuzenbideari jarraiki egin behar diren jarduerak ezin dira izaera horretako pertsona edo erakundeen esku utzi.

***Bigarrena.-** "LEARRI, S.A." enpresa bideratzailea da eta bere gizarte-jarduerak burutu beharreko obrak barne hartzen ditu. Enpresaren kapital sozial guztia toki-erakundeena da, Udal honena, besteak beste, Udala "LEARRI, S.A." sozietateko bazkidea da eta. Horrela bada, kontratazioari dagokionez, Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretua aplikatzen zaio; hori dela eta, kasu honetan funtsezko baldintzak eta baldintza organikoak betetzen dira LEARRI, S.A. sozietateak goiburukoan adierazitako obren burutzapenean organo kudeatzaile gisa jardun dezan.*

Ondorioz, aurreko arauak, Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen Legea, orokorrean eta berariaz aplikatu beharreko gainerako arauak, bai eta gai honi dagokionez egindako txostenak aztertu ondoren, Udalaren osoko bilkurak, gaia eztabaidatu eta gero, aho batez, ondokoa ERABAKI DU:

1) LEARRI, S.A. merkataritza-enpresari agindu ematea Amоротoko Udalerrian Kostatzako bidea egokitzeko Sabas Bedialauneta ingeniariak egindako proiektua aurrera eramateko.

2) Alkate andreari eskumena emango zaio, erabaki hau betetzeko egintza edo izapideak egin eta, bidezkoa bada, akatsak zuzen ditzan.

3) Erabaki honen berri emango zaio LEARRI, S.A. enpresari.

8.- KOSTATZAKO BIDEA EGOKITZEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA LEKEITIOKO UDALARI.-

Alkate andreak azaldu duenez, Bizkaiko Foru Aldundiko Landabideen hobekuntza egitarauaren barne 2004 urtean Kostatzako bidea egokituko da. Egokitze honen aurrekontua 31.067,00 eurotakoa da. Aldundiak onartutako dirulaguntza, berriz, 23.300,00 eurotakoa.

Kontutan izanik aipatutako bidea Lekeitioko Udaleko Ur Biltegira joateko erabiltzen dela, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Kostatzako landabidea egokitzeko lanak direla eta, Lekeitioko Udalari diruz lagundu gabeko kopuruaren %50a eskatzea, hau da, 3.883,50 euro.

2) Lekeitioko Udalari akordio honen berri ematea.

9.- AMOROTOKO HERRIGUNETIK SANEAMENDU SAREA OLETARA ERAMATEKO LANEK EGINDAKO KALTEAK ORDAINTZEA, EGOKI BADA.-

Alkateak azaldu duenez, saneamendu sarea Oletara eramateko egin ziren lanen ondorioz, Lauaxeta eta Leizkua baserrian kokatuta zeuden hainbat sagarrondo kaltetuta suertatu ziren.

Kontutan izan dira aipatutako baserrien jabeekin arazoa konpontzeko izandako harremanak.

Hori ikusita Udalbatzak, aho batez, erabaki du:

Saneamendu sarea Oletara eramateko egin ziren lanen ondorioz Lauaxeta eta Leizkua baserriko sagarrondoetan izandako kalteak ordaintzea, ondoren adierazten den modura: 1.803,04 euro Lauaxeta baserriaren jabearentzat eta 901,52 euro Leizkua baserriaren jabearentzat.

10.- EKOZAIN ETA EGUZKI TALDEEN MOZIOA.-

Ekozain eta Eguzki taldeek kanterei buruz aurkeztutako mozioaren berri eman da eta hitzez-hitz honela dio:

"Markina-Xemeindarrok eta Aulestiarrok aspaldi daukagu harrobien (kanteren) meatzaritzarekin bizi beharra. Beti iruditu zaigu herriaren ongizaterako beharrezkoak zirela.

Teknologia aurrerapenak etengabe garatuz doaz, eta teknika berriak aintzina pentsa ezin zitezkeen denbora neurritan harria ateratzeko gaitazuna ahalbidetzen dute.

Orain Euzko Jaurlaritzako Industri Sailak, Udalak kontuan izan barik, Lea Artibaiko gure mendietan, explotaziorako kantera berria eta ikerketarako baimenak onartu ditu.

Proiektu honek gure mendientzat eta ingurugiroarentzat dakartzan ondorioak negargarriak dira.

Uste dugu badela sasoia eztabaida sortzeko eta arazoari aurre egiteko.

- Zenbateraino suntsitu ahal da, nahikoa da! esateko?
- Ekonomia jarduera mendiaren balioen gaintik al dago?
Paisaia, lasaitasuna, akuiferuak, basoa...

Aipatutako hori guztiagaitik, Amorotoko Alkate eta udalkideei hauxe eskatzen diegu:

- 1) Industria eta Mehatze Sailari zuzendutako txostena idaztea, exigituz zuen lurraldeetan egin daitezkeen prospekzio edo beste edozein ekintza, aurretiaz herriko Udalari zuzentzea.
- 2) Industria Sailaren baimenaz gain, horrelako egitasmoak herriko Udalaren baimena behar dute.
- 3) Adieraztera eman, herriko antolamendu arauetan zonalde horrek "rural" kalifikazioa duela, eta Udalak ez duela baimenik onartuko, harria ateratzeko den inongo jarduera ekonomikorik

Mendia, paisaia eta baliabideak, bere osotasunean babestea da gure asmoa eta horrela uler dezazuela nahiko genuke.

Bitartean, eta zuen erantzunaren zai, har ezazue gure agurrik zintzoena."

Gaia azterturik, Udalbatzak mozio honetako hiru puntuak onartzea erabaki du.

11.- DIRULAGUNTZA ESKAERAK.-

Aurkeztutako dirulaguntza eskaerak azterturik, Udalbatzak aho batez erabaki du ondoren aipatzen diren dirulaguntzak ematea:

- Asociación Benefica Bikarte, 150,25 euro.
- Nazioarteko XVIII Emakumeen Bira, 150 euro.
- Kilometroak 2004, 150 euro.
- Nafarroa Oinez 2004, 150 euro.

12.- GASTUAK.-

Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, behar bada onartzeko:

- Learri, S.A.ren faktura, 35.833,56 euro.
- Canonen faktura, 65,96 euro.
- Würthen faktura, 502,05 euro.
- Acidekaren faktura, 135,95 euro.
- Ostoa, S.A.ren faktura, 149,61 euro.
- Fontaneria Letraukua, S.L.ren faktura, 56,03 euro.
- Ikusiren faktura, 10,58 euro.
- Cetolar, S.A.ren faktura, 198,36 euro.
- Ser Kontenen faktura, 96,05 euro.

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu andreak bilera amaitutzat eman du gaueko hamar terdiak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.